



## Udako zikloaren II. edizioaren egitaraua aurkeztu du Sorginxulo Lesakako kultur bilguneak

- *Egitarau zabala prestatu dute, uztailean hasi eta irailera bitartean diziplina desberdineko eta publiko anitzari zuzenduriko 18 kultur emanaldi eginen dira.*

Lesakan, 2021eko ekainaren 28an.

Lesakako Sorginxulo kultur bilguneak, Lesakako Udalaren diru-laguntzaz, Udako Zikloaren bigarren edizioa antolatu du. Iazko bideari jarraituz, garai hauetan hain beharrezkoak ditugun sormenean eta bizipozean oinarritutako eskaintza anitza dakar aurtengo edizioak, hilabete luzez landurikoa. Uztailean hasita, kultur ekitaldiz beteriko bi hilabete izanen dira, 18 guztira.

Izen ezagunak eta ez hain ezagunak tartekatuko dira; soinu, gorputz mugimendu eta ahots korda desberdinak. Herriko xoko desberdinetan izanen da musika, antzerkia, dantza, bertsoa, ipuina, jolasa... Adin guzietako jendearentzat, kalea eta aniztasuna direlako udako zikloaren ezaugarriak: denetik, denentzat, edonon.

Uztailaren 16an emanen zaio hasiera Udako Zikloari, MICEren kontzertuarekin. Lesakako Plazan izanen da, 19:00etan. Ondotik, bertze hainbat ekitaldik emanen diote jarraipena zikloari. Hemen agenda osoa:

DATA	ORDUA	IKUSKIZUNA	TOKIA
Uztailak 16	19:00	MICE kontzertua	Plaza zaharrean
Uztailak 18	19:00	Bertso Saioa: Josu Sanjurjo - Ekhiñe Zapiain - Aitor Mendiluze - Ane Labaka - Sustrai Kolina	Plaza zaharrean
Uztailak 25	18:00	Muxikoak Jaiki hadi taldearekin	Eltzetan
Uztailak 29	19.30	Xabi Solano eta Zigor DZ kontzertua	Irubide atarian
Uztailak 30	18:00	Sormen Ginkana	Biurranan
Uztailak 31	19:30	Led Silhouette Dantza entsegu irekia	Harriondoa atarian

Abuztuak 1	12:30	Txamukos mariatxiak	Onin erreka inguruan
Abuztuak 6	20:00	Tenpora Kontzertua	Plaza zaharrean
Abuztuak 8	19:00	YIJAA Antzerki familiarra	Iturbenako plazan
Abuztuak 19	21:00	Olaia Intziarte Kontzertua	Bixkantxeneko plazan
Abuztuak 22	19:30	Iñaki Dieguez eta Xabier Leturia "Beti bizi erronomia"	Ziobi atarian
Abuztuak 27	19:30	Zubi konkorduna bertso Saioa: Maialen Lujanbio - Amets Arzallus	Zubi konkordunan
Abuztuak 29	19:30	HURIH Kontzertua	Alkaiagan
Irailak 3	20:00	Nekatuak – Antton Telleria Bakarrizketa	Bittiriko plazan
Irailak 4	10:30	Lesakako Erraldioen eta buruhaundien konpartsa Elutxa txarangarekin	Harriondoatik hasita herri osoan
Irailak 11	19:00	Kantu-bira Lesakako abesbatzarekin	Antoiutik hasita
Irailak 12	19:00	Dupla Kontzertua	Harriondoa atarian
Irailak 17-19		Zikloaren Itxiera	

Emanaldi guztietara sarrera doakoa izanen da, aforoa bete arte. Emanaldi bakoitza segurua izateko helburuz, Sorginxulo, herritarrekin elkarlanean, antolakuntza sare bat eratzen ari da elkarlanean. Hagitz eskertuta azaldu dira antolatzaileak: "Hauek gabe ezinezkoa litzateke hain agenda betea aitzinera eramatea. Aunitz eskertzen dizuegu bolondres guzietan."